

AZPEITIA

43. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK
2025KO UDAZKENA



**ESKURATU ZURE
SARRERAK ONLINE!**



WWW.ANTZERKITOPAKETAK.EUS



Badator azaroa, eta azaroarekin batera, badatoz Euskal Antzerki Topaketak ere. Haziak ereiteko eta lurra ongarritzeko garai egokia izaten omen da urteko azken aurreko hilabetea, eta esango nuke hortik asko dutela Euskal Antzerki Topaketek ere; hau da, ia hilabete oso batez antzerkiaren bueltan sortzen den mugimendu hori ezinbestekoa dela biharko antzerkizaleak eta antzerkigileak sortzeko; behar-beharrezkoa euskara ongarritzeko.

Izan ere, topaketei esker, zenbat gaztetxo joan ote da euskarazko antzezlan bat ikustera bizitzan lehen aldiz? Zenbat herritar bihurtu ote gara antzerkizale topaketen bidez? Zenbat antzezlanek abiatu ote dute beren jendaurreko ibilbidea Azpeitian?

Ereitea, noski, ez da aski izaten fruitua emateko. Jarraipen bat eskatzen du, etengabeko lan bat. Horretan ere ari gara Azpeitian. Udalaren eta Kulturaz kooperatibaren arteko lankidetzaren bidez, hainbat proiektu jarri ditugu martxan: Dinamoa sormen guneko Gorputzaren eremua, sorkuntza bekak, egonaldiak... Jarrai dezagun bide horretan, eta balio diezagula azaroak indarrak hartzeko.

43. aldi hau ere egitarau bete-betearekin dator. Nor naizen baneki antzezlanarekin hasi eta Kaka proiektuaren emanaldiarekin amaitu arte, dozenatik gora antzezlan ikusteko aukera izango dugu. Eskola antzerkiak ere ez du hutsik egingo, eta Corrado Massaciren lekukoa hartuko duen Topic zentroaren bidez, txotxongiloen mundua deskubritzeko moduan izango gara.

Gozatu!

LEIRE SARASUA
Kultura batzordeburua

Euskal antzerkiaz goza dezagula!

NOR NAIZEN BANEKI AXUT!-ARTEDRAMA

URRIAK 31-OSTIRALA
10:30-SOREASU ANTZOKIA
IKASTETXEENTZAT

NOR NAIZEN BANEKI AXUT!-ARTEDRAMA

AZAROAK 1-LARUNBATA
19:00-SOREASU ANTZOKIA

RENATA KAMIKAZ KOLEKTIBOA

AZAROAK 2-IGANDEA
19:00-SOREASU ANTZOKIA

IGOGAILU BATEAN AMAITU ZEN MUNDUA

AMAHIRU KONPAINIA
AZAROAK 6-OSTEGUNA
19:00-DINAMOA SORMEN GUNEA

AI, GURE JUANETEA TARTEAN TEATROA

AZAROAK 7-OSTIRALA
21:30-SANAGUSTIN KULTURGUNEA

ERAITSI S.L GOITIBERA

AZAROAK 8-LARUNBATA
18:30-PLAZA NAGUSIA
KALE ANTZERKIA - DENENTZAT

BADAKIZU PLASTIKOZKO LOREAK EZ DIRELA INOIZ BIZI IZAN, EZTA?

TANTTAKA TEATROA
AZAROAK 9-IGANDEA
19:00-SOREASU ANTZOKIA

ESKOLA ANTZERKIA

AZAROAK 10-14
11:00-SOREASU ANTZOKIA

GIZON GOSETUAK SUSTRAI TEATROA

AZAROAK 13-OSTEGUNA
19:00-DINAMOA SORMEN GUNEA

RIKARDO III ETA NI

DXUSTURI TEATROA +
HORMAN POSTER
AZAROAK 14-OSTIRALA
19:00-SOREASU ANTZOKIA

GURE KANOA ZURRUNKA TEATROA

AZAROAK 15-LARUNBATA
17:00-SOREASU ANTZOKIA

ITZULERA DEJABU KONPAINIA

AZAROAK 16-IGANDEA
19:00-SOREASU ANTZOKIA

ADARBAKARRA INFINITU DRAMA

AZAROAK 20-OSTEGUNA
19:00-DINAMOA SORMEN GUNEA

KAKA SOLASALDIA

AZAROAK 20-OSTEGUNA
AZPEITIKO EUSKALTEGIA
EUSKALTEGIKO IKASLEENTZAT

BURUGABEAK EROMEN ELKARTEA

AZAROAK 21-OSTIRALA
19:00-SOREASU ANTZOKIA

TOPAKETETAKO SARI BANAKETA

AZAROAK 23-IGANDEA
19:00-SOREASU ANTZOKIA

ETA ONDOREN

KAKA ERIKA ETA XANTI

AZAROAK 23-IGANDEA
19:00-SOREASU ANTZOKIA



NOR NAIZEN BANEKI **AXUT!-ARTEDRAMA**

URRIAK 31 - OSTIRALA
10:30 - SOREASU ANTZOKIA
IKASTETXEENTZAT



Ikasleentzat eskainiko den antzezlan. Ondoren, antzezleekin eta sortzaileekin solasaldia, sormen prozesuaz hitz egiteko eta gaian sakontzeko.



NOR NAIZEN BANEKI

AXUT!-ARTEDRAMA

AZAROAK 1 - LARUNBATA

19:00 - SOREASU ANTZOKIA

HELDUENTZAT

FITXA ARTISTIKOA

- **Idazleak:** Harkaitz Cano, Ximun Fuchs
- **Zuzendaria:** Ximun Fuchs
- **Aktoreak:** Ramon Agirre, Garoa Bugallo, Maialen Diaz, Aline Etxeberri, Manex Fuchs, Idoia Tapia, Oier Zuñiga
- **Koreografoa:** Philippe Ducou
- **Argiztapena:** Acrónica
- **Musika:** Xabier Erkizia
- **Soinua:** Philippe Barandiaran eta Xabier Erkizia
- **Ekoizpena:** Iasone Parada, Argi Perurena, Mikel Unamuntzaga
- **Banaketa:** Irantzu Azpeitia
- **Mediazioa:** Arantxa Hirigoyen
- **Koru lanak:** Garazi Navas
- **Jantzi diseinua:** Ikerne Gimenez
- **Jantzigintza:** Kkum Atelier
- **Irudia:** Oier Zuñiga
- **Argazkiak:** Ainhoa Resano
- **Bideoak:** Eñaut Castagnet
- **Komunikazioa:** Dijitalidadea, Gotzon Barandiaran



SINOPSIA

Nor naizen baneki... Zuk badakizu? Jakin nahi zenuke? Bada jakin ondoren damutu denik? Angelu guztietatik nahi zenuke zeure burua ikusi, ala behar da angelu itsu bat? Ezagutu daiteke norbere burua isolatuki, norbere ingurunea ezagutu gabe? Nola jakin, zinez, zarena zarela? Gurasoen ispiluan? Seme-alabenean? Aztarnei esker? Nola jakin nor zaren, ingurune aldakor batean etengabe aldatzen dena bazara?

Ez ote da antzerkia barne indusketarako tresnarik onena?

RENATA KAMIKAZ KOLEKTIBOA

AZAROAK 2 - IGANDEA
19:00 - SOREASU ANTZOKIA
HELDUENTZAT

AZPEITIA 43. EUSKAL
**ANTZERKI
TOPAKETAK**



FITXA ARTISTIKOA

- **Zuzendaritza eta testua:** Iraia Elias, Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala, Amancay Gaztañaga
- **Zuzendaritza bidelaguna:** Espe Lopez
- **Jantziak:** Barbara Rasso
- **Argiztapena:** Imanol Garcia
- **Eszenografia:** Kamikaz Kolektiboa, Xanti Agirrezabala
- **Musika:** Eñaut Gaztañaga
- **Diseinu grafikoa:** Holy Fire Studio
- **Eszena argazkiak:** Iker Gozategi
- **Euskara zuzentzailea:** Xabi Aizpurua
- **Ekoizpena eta banaketa:** Kamikaz Kolektiboa
- **Kolaborazio bereziak:** Odei Barroso, Xabier Euzkitze

SINOPSIA

Azken orduko albisteak:

Renata berpiztu egin da! Renata 133garren aldiz hil da: marrazoz betetako piszinara salto egin eta bururik gabe geratu denean. Lasai, berehala berpiztuko baita.

Reneta etengabe hil eta pizten da, esku artean hil ala biziko misio bat daukalako.

Pantailaren artean desitxurutzen ari den sistema aldrebes baten erdian.

Lortuko ote du bizitzen ahaztu duen jendartea esnatzea?



IGOGAILU BATEAN AMAITU ZEN MUNDUA AMAHIRU KONPAINIA

AZAROAK 6 - OSTEGUNA

19:00 - DINAMOA SORMEN GUNEA

HELDUENTZAT

FITXA ARTISTIKOA

- **Egilea:** Iñaki Cid Larrea
- **Zuzendaria:** Jon Ander Alonso
- **Aktoreak:** Eneritz Sanchez, Iñigo Elozegi, Iñaki Cid
- **Atrezzo:** Alvaro Ledesma
- **Ekoizpena:** Javi Arbillaga
- **Bideo/Argazkiak:** Estitxu Veintemillas
- **Kartela:** amaHiru konpainia
- **Argiak:** Iñaki Santos
- **Musika:** Iñaki Cid, Naxker



SINOPSIA

Mundua amaitu da eta igogailu baten barruan harrapatu zaitu. Antzezlanaren izenean esaten da. Spoiler handia da. Baina lasai, gure antzezan berriaren hasiera besterik ez da.

Idoia eta Julen igogailu batean esnatzen dira. Ez dute ezer gogoratzen. Nola iritsi dira bertara? Zergatik ezin dira aterara? Eskerrak igogailu konpainiako telefonistak laguntza bidali duen. Berehala aterako dituzte bertatik*. Bitartean, jarri eroso eta pentsatu galdu duzun bizitza horretan. Mundua amaitu da. Orain bizitza berri bat zain duzu. Agian dena pikutara bidali behar genuen zerotik hasteko.

*Berehala, berehala ez. Antzezlanak 45 minutu irauten ditu.

AmaHiru konpainiaren antzezan berri honek gaur egungo bizitzen inguruko gogoeta bat jarriko du mahai gainean: Bizi dugun bizitza benetan guk aukeratutakoa al da? Nola iristen gara nahi ez ditugun lanak, biko-teak, etxeak etab. izatera? Adimen artifizialak langile guztiak ordezkatzuko baditu, zergatik ez izan benetan erreala den norbait? Bai, antzezan honetan ere adimen artifizialaren inguruan hitz egiten da, eta asko gainera. Baina ezin dugu ezer gehiago kontatu, hori bai izango litzatekeela egundoko spoilerra.

AI, GURE JUANETEA TARTEAN TEATROA

AZAROAK 7 - OSTIRALA
21:30 - SANAGUSTIN KULTURGUNEA
HELDUENTZAT

AZPEITIA 43. EUSKAL
ANTZERKI
TOPAKETAK



FITXA ARTISTIKOA

- **Egilea:** Patxo Telleria
- **Zuzendari eszenikoa:** Jokin Oregi
- **Zuzendari musikala:** Adrian Garcia De Los Ojos
- **Aktorea:** Patxo Telleria
- **Musikariak:** Adrian Garcia De Los Ojos, Maider Lopez
- **Argi diseinua:** David Rodriguez
Soinu teknikaria: Borja Arbaiza
- **Eszenografia:** Pedro Rojo (El Cajón)
- **Ekoizle exekutiboak:** Myriam Garzia, Pio Ortiz De Pinedo
- **Kanpoko begirada:** Mikel Markez
- **Banakea:** Myriam Garzia

SINOPSISIA

Ikuskari hibrido bat da hau, hitzez eta musikaz osatua. Taula gainean, aktore musikari bat eta bi musikari aktore. Testua, Laboaren zenbait kantaren letren berrinterpretazio erabatekoa, idazlearen gaur egungo ikuspuntutik: Hegazti errariak, Izarren hautsa, Bedeinkatua, Negu hurbila, Lili bat, Oi Pello Pello, Haika mutil, Baga biga higa, lhes betea.

Hamarkadak pasa dira kanta horiek konposatu zirenetik, eta ez dute galdu orduko indarra eta zirrara. Horrexegatik, gure ondare emozionalaren ezinbesteko parte direlako, izan du egileak kantok berregin eta birkodetzeko ausardia. Geureak direlako, guztionak.

Jatorrizko bertsioaren zati laburrak kantatzen dira antzezpenean tarteka, baina, batez ere, kanta bakoitzaren ikuspuntu berriak eskaintzen dira. Hitzek Laboaren kanten letra (Artze, Lete, Sarrionandiarenak) izango dute abiapuntu, baina bide berrietatik garatuko dira, desegituratze eta desitxuratze erradikal batean. Musika ere Laboaren kanten melodietatik abiatuko da, baina, hitzak bezala, bide berri eta propioak jorratuko ditu.



ERAITSI S.L. GOITIBERA

AZAROAK 8 - LARUNBATA
18:30 - PLAZA NAGUSIA
KALE ANTZERKIA
DENENTZAT

FITXA ARTISTIKOA

- **Ekoizpena:** Goitibera
- **Zuzendaria:** Itziar Fragua
- **Zuzendari laguntzailea:** Miren Tirapu
- **Antzezleak:** Oier Zuñiga, Saioa Iribarren, Ander Basaldua
- **Eszenografia:** Ander Basaldua
- **Jantziak:** Zaloa Basaldua
- **Kober:** Gaizka Chamizo, Jon Koldo Vázquez
- **Argazkiak:** Hodei Torres
- **Bideoak:** Zazpi t' erdi
- **Bitartekaritza:** Ibai Etxezarraga, Goitibera
- **Soinu Aholkularitza:** Jon Urrutia (Trakamatraka)



SINOPSISIA

Eraitsi S.L. zuen herrira iritsi da, herriko plaza bertan behera botatzera, *Basque Culture Exhibition Forum* mega-egitura berria eraiki ahal izateko.

Enpresa leloak dioen bezala: *"Zaharra eraitsi, berria eraiki!"*

Nola suntsitzen da plaza bat?

Zerk sortzen du plaza bat?

Espazio publikoa eta jolasaren inguruan hausnartzen duen adin guztientzako kaleko ikuskizuna.

BADAKIZU PLASTIKOZKO LOREAK EZ DIRELA INOIZ BIZI IZAN, EZTA? TANTTAKA TEATROA

AZAROAK 9 - IGANDEA
19:00 - SOREASU ANTZOKIA
HELDUENTZAT

AZPEITIA 43. EUSKAL
**ANTZERKI
TOPAKETAK**



FITXA ARTISTIKOA

- **Egilea:** Mireia Gabilondo
- **Antzezleak:** Mireia Gabilondo, Aitziber Garmendia, Telmo Irureta
- **Zuzendaritza:** Mireia Gabilondo
- **Espazio eszenikoa:** Fernando Bernués
- **Jantzitegia:** Ana Turrillas
- **Argiztapen diseinua:** David Bernués
- **Musika:** Mikel Laboa, Fernando Velázquez
- **Zuzendari laguntzailea:** Laia Bernués
- **Teknika:** Acrónica Producciones
- **Ekoizpen exekutiboa:** Ane Antoñanzas
- **Ekoizpena:** Paola Eguibar
- **Administrazioa:** Maite Gorrotxategi
- **Argazkiak:** Bárbara Sánchez Palomero
- **Kartel diseinua:** CDN (Emilio Lorente)
- **Banaketa:** Portal 71

SINOPSIA

Hiru pertsona, edo lau, hobeto esanda:

LUCÍAk izugarritzko depresioa du, eta ondorioz, esperientzia bikario bat biziko du adimen urritasuna duen gazte zoragarri baten bitartez: YOLDI.

YOLDIk JOSÉ MANUEL psikoterapeuta ospetsuaren landareak zainduko ditu; izan ere, garuneko paralisia dela eta, erabateko mendekotasuna du orain. Bere psikiatrarekin soilik hitz egiten du adimen artifizial batekin, ALEXArekin, duen harreman oso intimoaz.

MARTINA, psikiatra, misantropo xamarra da, eta ezin du gehiago. Ezin du bizitza jasan. Ez da gai alaba Luciari laguntzeko. Amore emango du? Agian bai.

Noski, hiruretako batek ere, barkatu, lauetako batek ere ez daki ezer besteei gertatzen zaienaz, ez haien desilusioez, ez haien sekretuez; baina bada zerbait ukaezina: bizitza honetan gertatu zaien gauzarik onena elkar ezagutzea eta beren bideak gurutzatzea izan da.

ESKOLA ANTZERKIA

AZAROAK 10 - ASTELEHENA AZPEITIKO ANTZERKI TALDEAK

- 'TATANIC'

11:00 - SOREASU ANTZOKIA
ANTZEZLEEN MAILA: 11-13 URTE
NORENTZAT: LH3-LH6

- 'IKUSTEN EZ BADUZU,
IKUSIKO DUZU'

11:00 - SOREASU ANTZOKIA
ANTZEZLEEN MAILA: 8-12 URTE
NORENTZAT: LH3-LH6

AZAROAK 11 - ASTEARTEA AZPEITIKO ANTZERKI TALDEAK

- 'EUSKAL SCHOOL'

- 'BUKAERA'

11:00 - SOREASU ANTZOKIA
ANTZEZLEEN MAILA: 10-18 URTE
NORENTZAT: LH5-LH6

AZAROAK 12 - ASTEAZKENA BERMEOKO SAGRADO CORAZON IKASTETXEA

- 'HOLLYWOODEKO IZARRA'
- 'NONZERBARRI ENPARANTZA'
- 'LEHEN HEZKUNTZAKO
HIRUGARREN ZIKLORA HELDU
GARA'

11:00 - SOREASU ANTZOKIA
ANTZEZLEEN MAILA: LH6
NORENTZAT: LHI-LH6

AZAROAK 13 - OSTEGUNA ERREZILGO SAN MARTIN ESKOLA ETA AZPEITIKO ANTZERKI TALDEA

- 'ERREZILDARRAK DUBAIN'

11:00 - SOREASU ANTZOKIA
ANTZEZLEEN MAILA: 9-11 URTE
NORENTZAT: LH3-LH6

- 'NOR DA ZURIÑE?'

11:00 - SOREASU ANTZOKIA
ANTZEZLEEN MAILA: 10-13 URTE
NORENTZAT: LH3-LH6

AZAROAK 14 - OSTIRALA AMEZKETAKO IKASTETXEA

- 'MUNDUKO ZOPARIK ONENA'
IPUIN MUSIKATUA

- 'BERTSO ANTZERKIA'

- 'DIRUAK SENDATU DU'

ANTZERKIA

11:00 - SOREASU ANTZOKIA
ANTZEZLEEN MAILA: LH4-LH6
NORENTZAT: LHI-LH6



GIZON GOSETUAK SUSTRAI TEATROA

AZAROAK 13- OSTEGUNA
19:00 - DINAMOA SORMEN GUNEA
HELDUENTZAT

AZPEITIA 43. EUSKAL
**ANTZERKI
TOPAKETAK**



FITXA ARTISTIKOA

- **Idea originala, ekoizlea eta aktorea:**
Eriz Alberdi
- **Zuzendaritza eta egilea:** Agurtzane
Intxaurraga
- **Zuzendari laguntzailea eta egilea:** Dorleta
Urretabizkaia
- **Eszenografia eta txotxongiloen
manipulazioa:** Javi Tirado
- **Argi diseinua:** Andoni Mendizabal
- **Bideo sorkuntza eta diseinua:**
Ugaitz Albisu

SINOPSIA

Kandidok, Eriz bilobari gerra zibilean bizitakoa kontatu nahi dio. Esan nahi dio 1936an azkenetakoa izan zela Irun uzten, baina damututa Euskal Herrira itzuli zela bere anai Tomasek bezala bere herria eta etxea defendatzeko asmoarekin. Imajinatu gabe, gutxira bere burua traizionatu beharko zuela. Gerrak elur zaparrada baten antzera, dena zanpatzen baitu, asmoak eta itxaropenak. Hainbeste gauza kontatu nahi dizkio!

Gazan orain gertatzen ari den genozidioaz kontatu nahi dio. Mohamed eta Aisha anai arreben heriotzaz. Israelgo armadak jaurtitako misil batek erail zituen biak 2023ko azaroan, amak ogi bila bidali zituenean.

Kandidok dena kontatu nahi dio Eriz bilobari, maitasunez eta maitasunarekin. Bihotzean gordeta dituen hitzekin.



RIKARDO III ETA NI DXUSTURI TEATROA + HORMAN POSTER

AZAROAK 14 - OSTIRALA
19:00 - SOREASU ANTZOKIA
HELDUENTZAT

FITXA ARTISTIKOA

- **Elkarlan artistikoa:** Horman Poster eta Dxusturi teatro
- **Jatorrizko testua:** William Shakespeare
- **Zuzendaritza artistikoa:** Igor De Quadra
- **Dramaturgia orokorra:** Eneritz Artetxe Aranaz
- **Jatorrizko testuen itzulpena:** Xabi Paya
- **Antzezleak:** Leire Ucha, Jon Zumelaga, Eneritz Artetxe
- **Dantzari/musikaria:** Pette Jaragoihen
- **Argi diseinua:** Amaia Yurrebaso
- **Jantzi diseinua:** Sin Patron
- **Ezenografia tailerra:** Atx teatroa
- **Produkzioa:** Dxusturi



SINOPSIA

Hiru pertsonaia oholtza gaineen. Hirurak Shakespearen zale amorratuak. Hiru friki hauek, Rikardo III. ren gaineko aluzinazio eszeniko bat ekarriko dute gure aurrera. Nor da Rikardo III? Ba al du Rikardok moralaren kontzientziarik? Zertan datza politikak? Manipulazio mekanismo berberak erabiltzen ziren lehen zein orain? Noraino eraman gaitzake botere goseak?

Shakespearek idatzitako tragedia historikoa oinarri hartuta, hiru kideak galdera hauek erantzuten saiatuko dira. Horretarako, Shakespearen antzezlaneko ezenak, teoria psikologiko-soziologikoak, umorea eta eztabaidak erabiliko dituzte. Fikziotik terapiara eta handik dantzara ibiliko dira saltoka oholtza gaineen.

Anabasa horretan gaudela apurka apurka, Rikardo III. ren munduak irentsiko gaitu. Fikzio maila guztiak nahastuko zaizkigu eta ikuslegoaren pentsamenduan galdera bat pausatuko da: gutako bakoitza ote da Rikardo III?

GURE KANOA ZURRUNKA TEATROA

AZAROAK 15 - LARUNBATA
17:00 - SOREASU ANTZOKIA
FAMILIENTZAT

AZPEITIA 43. EUSKAL
**ANTZERKI
TOPAKETAK**



FITXA ARTISTIKOA

- **Zuzendaritza:** Josu Cámara
- **Gidoia eta sorkuntza:** Josu Cámara, Eñaut Gorbea, Odei Arregi
- **Txotxongiloen manipulazioa:** Eñaut Gorbea, Odei Arregi
- **Dramaturgian laguntzailea:** Itziar Rekalde Luzarraga
- **Musika originala:** Pascal Dione
- **Argien diseinua:** Amaia Garrosa
- **Txotxongiloen sorkuntza:** Eñaut Gorbea
- **Eszenografiak:** Eñaut Gorbea
- **Kolaborazio berezia:** Ion Maia Soria
- **Produkzioa:** Zurrunka Teatro

SINOPSISIA

"Gure kayukoa ezin badugu arrantza egiteko erabili, Arrain Argitsuaren bila joateko erabiliko dut"

Abba, Senegalgo arrantzale familian jaioa, bere bihotzean Arrain Argitsua duen Amona Maam Kumbaren kantuekin hazi da; hark erakartzen du arrantza Arrainen Etxean, bertako arrantzaleek soilik beharrezkoa dena arrantzatu dezaten.

Baino garai argiak ilundu eta arrantza-ontzi erraldoiek itsasoa hustu eta Maam Kumbaren ahotsa isilarazi dute. Herria arrainik eta itxaropenik gabe utziz.

Abbak, egoera eraldatzeko asmoaz bidaiari ekingo dio. Ipar Portura iritsita, Izaro ezagutuko du, arrantza-ontzi handi baten patroia alaba. Bien arteko adiskidetasunak bi mundu kontrajarri batu eta ulermena eta elkartasuna sortuko ditu. Elkarrekin, mundua hobetzeko bide berriak aurkitzen saiatuko dira, Arrainen Etxea berriro biziarazteko.

Istorio honek kultura ezberdinen arteko errespetua eta elkarriketa azpimarratzen ditu, naturarekiko harreman osasuntsua, ahots galduak berreskuratzeko eta belaunaldi berriengan itxaropena sortarazteko beharra.



ITZULERA DEJABU KONPAINIA

AZAROAK 16- IGANDEA
19:00 - SOREASU ANTZOKIA
HELDUENTZAT

FITXA ARTISTIKOA

- **Aktoreak:** Ainara Gurrutxaga, Urko Redondo, Miren Alcalá, David Aguilar
- **Bidelaguntza artistikoa:** Iara Solano
- **Gidoia eta testuak:** Dejabu Konpainia, Ainara Gurrutxaga
- **Idazketan bidelaguntza:** Mariana De La Mata
- **Musika konposaketa:** Ander Fernandez
Kolaborazioak: Amorante eta Ande Mujika
- **Ikusentzutekoak:** Zazpi t'erdi, David Aguilar
- **Argi diseinua:** Andoni Mendizabal
- **Eszenografia:** Dejabu Konpainia, Urko Redondo
- **Jantziak:** Barbara Rasso-Burni Iana: Alvaro Ledesma
- **Miniaturak:** Diah Setiawati (miniatures.id)
- **Teknikariak biran:** Andoni Mendizabal, Josu Flores, Hodei Orbegozo
- **Mediazioa eta kanpo begirada:** Oier Zuñiga



SINOPSIA

Antzerki konpainia bateko hiru kidek Mexikora eginiko bidaia kontatzen du antzezlanak. Dokumental bat grabatzera joan dira krisi kreatiboan dauden hiru kideak, Etxepare Euskal Institutuak emandako dirulaguntza bati esker.

Ezusteko gertakari batek zeharo aldatuko du bidaiaren norabidea ordea.

Zuzenean sortutako filma baten moduan eszenaratzen da lana. Hiru antzezleez gain, David Aguilar zinegilea dago oholtzan, zuzeneko irudien sorkuntza eta errealizazioan. Komedia existentzial honetan ez dira faltako abentura, paisaia psikodelikoak eta bizia salbatuko dien txakur chihuahua bat.

Esperientzia errepika ezina da emanaldi bakoitza ikusleentzat, abenturaren parte baitira nolabait.

Poesia bisual handiko proposamen honek errealitatea eta fikzioaren arteko jolasa du oinarri. Auto-fikzioa lanabes hartuta, identitateaz eta munduarekin dugun harremanaz gogoeta egitera gonbidatzen gaitu.

ADARBAKARRA INFINITU DRAMA

AZAROAK 20 - OSTEGUNA
19:00 - DINAMOA SORMEN GUNEA
HELDUENTZAT

AZPEITIA 43. EUSKAL
**ANTZERKI
TOPAKETAK**



FITXA ARTISTIKOA

- **Sorkuntza:** Garazi Navas, Maite Aizpurua Olaizola
- **Zuzendaritza artistikoa eta ekoizpena:** Maite A.O., Infinitudrama
- **Kanpo begirada:** Oier Guillan
- **Testua:** Maite A.O.
- **Musika konposizioa:** Garazi Navas
- **Argiztapena:** Junki Mayo
- **Teaser:** Zazpi t' erdi
- **Irudiaren diseinua:** Alots Arregi
- **Laguntzaileak:** Eremuak, Dinamoia Sormen Gunea, Eusko Ikaskuntza. Lekuona Fabrika (Legamia).

SINOPSIA

“Zuloa” izeneko bailara misteriotsu batean, soinu-jole eta ikerlari poeta batek, Adarbakarra berpiztuko dute publikoaren aurrean ager dadin. Zer kontu dezake gutaz, inoizko izaki mitologiko globalizatu eta bertsionatuenak?

“Adarbakarra” euskaldunasunari, eta zergatik ez, gudariari, luma jarri nahian dabilen olatura batzen den proposamena da. Fedea, justizia, herria edota jatorria bezalako topikoak begirada kuri-feminista batetik nola zikindu, nahastu eta hondarretik berreraiki ditzakegun ikertzen ditu sormen proiektu honek. Elementu klasiko, garaikideak eta tradizionalak nahasten dituen fantasia eta gordintasunezko ipuin eszenikoa da. Umorea, musika eta poesia bisualizazio betetako kontzertua eta performanzen arteko munstroa.



BURUGABEAK EROMEN ELKARTEA

AZAROAK 21 - OSTIRALA
19:00 - SOREASU ANTZOKIA
HELDUENTZAT

FITXA ARTISTIKOA

- **Aktoreak:** Zestoako Arte Eszenikoko 34 ikasle izango dira oholtza gainean
- **Testua:** Sorkuntza kolektiboa
- **Dramaturgia eta zuzendaritza:** Amancay Gaztañaga
- **Jantzitegia:** Donostiako AEG jantzitegi eskola
- **Eszenografia:** Eromen produkzioak
- **Argiak:** Imanol Garcia



SINOPSIA

Hiru istorio ezberdin topatuko ditugu komedia honetan:

HIGHLANDERRA: maitasun erromantikoaren atzaparretan erori dira sei emakume. Mendi puntan dagoen txabola galdu batean pasako dituzte egunak inoiz agertuko ez den gizon idiliko baten zain. Lortuko ote dute bertatik irtetea?

SENZA UN PERCHÉ: azken bidaia baten testigu izango dira kontraesanetan itota bizi diren pertsonaia hauek. Haien bizitzak, bihotzak bezain hutsak daude. Bidaia surrealista honetan ordea imajinatu ezin duten Kapitain baten plan maltzurari aurre egin beharko diote. Lortuko ote dute bizirik portura iristea?

BURUGABEAK: Publikoa iraindua izan da. Nork iraindu du publikoa? Nor ausartu da horren ekintza bortitza egitera? Pertsonaiak epaiketa absurdo bati aurre egin beharko diote gaizkilea topatu ahal izateko.

Erika Olaizola eta Xanti Agirrezabalak irabazi zuten Korrikaren II. Sorkuntza beka. Bi azpeitiarek osatutako antzezlanak ikusteko aukera izango da Topaketen baitan, eta horrez gain, solasaldi bat ere izango da, antzezlana lantzen dituen ildo nagusiak ezagutzeko.

ANTZEZLANA

AZAROAK 23 - IGANDEA

19:00 - SOREASU ANTZOKIA

HELDUENTZAT

SINOPSIA

Herriko plazan, kaka-mokordo bat agertu da. Kaka azaleratu da eta egoeraren analisia egin behar da.

Nork egin du? Noizk dago hor?

Eta orain, zer egin kaka honekin?

Noren ardura da?

Nori tokatzen zaio marroi hau argitzea? Garbitzea?

Kakak kaka dakar, eta pentsatzen jarrita...

Mundua nolakoa litzateke, bakoitza bere kakaren jabe egingo balitz?

Norbanako, kolekibo edo herri gisa batzen gaituen, baina ezkutatzen dugun horren guztiaren azaleratze-festa da KAKA.

FITXA ARTISTIKOA

• Ekoizpena eta zuzendaritza:

Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala

• Testua:

Kepa Errasti, Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala

• Aktoreak:

Mikel Laskurain, Ainhoa Aierbe, Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala

• Eszena-zuzendaria:

Espe Lopez

• Eszenografia eta jantziak:

Ikerne Gimenez

• Argi diseinua eta teknika:

Imanol Garcia

• Musika eta hitzak:

Liki Likatsu eta Leka Records

• Kartela eta promozio argazkiak:

Holy Fire Studio

• Eszena-argazkiak:

Iker Gozategi

SOLASALDIA

AZAROAK 21 - OSTIRALA

UDAL EUSKALTEGIA

EUSKALTEGIKO IKASLEENTZAT





ANTOLATZAILEA:

Azpeitia
Denontzat

LAGUNTZAILEAK:

 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia

Kulturaz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba



WWW.ANTZERKITOPAKETAK.EUS